



## ERRONKA: PUZTU GLOBO BAT BIKARBONATOA ETA OZPINA ERABILIZ. BAINA LEHERTU GABE!

Jarri ozpin pixka bat ur-botila huts batean, eta, gero, jarri bikarbonatoz betetako globo bat botilaren ahoan. Hermetikoki itxita gelditzen denean, globoa astindu eta bikarbonatoa ateratzen bada, sortzen den gasak globoa puztuko du. Aurkitu al dezakezu zer bikarbonato-eta ozpin-kantitate den egokiena globoa asko puzteko, baina lehertu gabe?

**ZEREGINA:** Aurkitu zer bikarbonato- eta ozpin-kantitate den egokiena globoa asko puzteko, baina lehertu gabe!

### MATERIALAK

Globo bat    Plastikozko botila huts bat    Bikarbonatoa    Ozpina

### GAKOAK

- Globo-leherketa gehiegi entzun nahi ez baduzu, hasi bikarbonato- eta ozpin-kantitate txikiekin.

### Gehiago nahi baduzu...

LEHERTU AL DEZAKEZU GLOBO BAT LIMOI-ZUKUA ETA BIKARBONATOA ERABILIZ? OSAGAI BAKOITZETIK ZENBAT BEHAR DUZU?

ETA FRESKAGARRI-HAUTSA ETA BIKARBONATOA ERABILIZ? BAKOITZETIK ZENBAT?